

Lehen egunkaria

El Mundo del País Vasco, 1992-02-07.

Bada egunkari bat baino gehiago erosten duenik. Euskalduna agertu denez gero, bi erosten hasi ginen asko, egunkariaren lehengo ohitura bapatean uztea ez baita erreza izaten; halere, urtebete gero askok utzi dio bigarrena egunero erosteari, euskaldunari eutsi dio, hizkuntzara eta honekin euskal arazoak zabalago, eta batez ere sakonago, jakitera ohitu delako.

Egunkari erdaldunetan somatzen ez den osotasun berri bat dakar berekin orain egunkari euskaldunak. Eta lehen bi, lehengo erdalduna eta euskaldun berria erosten hasi zen asko hasi da, ustekabean bezala, lehenengo egunkaria eta bigarren erdaldun erosten. Ordena honetan.

Fenomeno hau nabaria da dagoeneko euskaldun askorentzat: ezin dira euskal egunkaria ikusi gabe pasa, zerbait falta zaiote asko horiei egunero.

Egia garbia da oraindik ez dugula egunkari euskalduna geuk behar bezalako neurrian egitea lortu: falta zaio astelehenekoa, kirola eta guzti, eta mozketa honek apurtzen du egunkariaren zikloa; bestalde, ez dugu dirurik herrialdetako orrialde bereziekin herriengandik hurbilago egoterik, eskela eta guzti, askok herrietako berri xeheak eta eskelak falta zaizkiolako erosten du egunkari erdalduna.

Honetxegatik behar dugu aurten, bigarren pauso bezala, bi gauza hauek eroso egiteko dirulaguntza eta oraindik jasotzen ez dugun propaganda instituzionala, hauek gabe ezin baitugu beste egunkariekin lehiatu.

Hau da geure apostuaren bigarren zatia; eta lortuko dugu; lehen egunkaria euskalduna lortu ezina zela uzte genuen etsipena gainditzeko gauza izan bagara, nola ez dugu, bada, orain, zailena egin eta gero, bigarren pauso erabakikor hau emango!